AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

5214

341/2024 DEKRETUA, azaroaren 12koa, Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordea kargutik kentzeko dena.

Uztailaren 30eko 196/2024 Dekretuaren bidez, Agustin Zubillaga Rego jauna Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordе izendatu zen. Hala ere, pertsona hori titularra izan zen organoa, Administrazio Digitalaren eta Zerbitzu Orokorretako sailburuordetza izatera igaro da Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren ondorioz. Hori dela eta, egoera berrira egokitzeko, beharrezkoa da Agustin Zubillaga Rego jauna desagertutako kargutik kentzea eta, ondoren, egungo karguan izendatzea.

Horrela, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 18.j), 26.6 eta 29. artikuluetan ezarritakoaren arabera, Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburuaren proposamenez, eta Gobernu Kontseiluak 2024ko azaroaren 12an egindako bilkuran proposamena aztertu eta onartu ondoren, hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Agustín Zubillaga Rego jauna Administrazioko eta Zerbitzu Orokorretako sailburuorde kargutik kentzea.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek 2024ko azaroaren 11tik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko azaroaren 12an.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRECHENA CID.